

NAFA RR AREN EGUNA

2025

APirilAREN 27A
BAIGORRI

KATEEKIN
ATEAK
HAUTS!!

BASAZEA
Kultur Batasuna


 **baigorri**
herriko etxea
maire

 **ARGIA**

 **elke**
EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
EUSKAL KULTURAREN
BAGUIA

berria

 **Euskal
Irratiak**



Aurten ere Basaizea elkarteak Kulturaldi berri bat prestatu du. Urte guziz; Baigorriko eskualdean, baina zabalago ere, jendea hitzordu horren beha da, Nafarroaren Egunarekin bukatzen dena. Kulturaldia (garaian Kultur Astea), 1979. urtean sortu zen eta oraino bizi da.

Baigorriko eskualdean orotariko euskarazko ekitaldien eskaintzea du helburutzat: ikusgarri, antzerki, kantaldi, eztabaida, gogoeta... Eskas bati erantzuteko sortu zen, garaian euskarazko sorkuntzak eta emanaldiak arrunt murriztak baitziren.

Gaur egun, eskaintza aberatsagoa bada ere, ez dugu begi bistatik galtzen euskaraz bizi nahi badugu horrelako ekitaldiak beharrezkoak direla eta oraino lan handia gelditzen dela euskal kulturak leku ttipiegia baitu gure lurraldean.

Beraz, gure maneran eta gure ahal xumeeekin entseatzeko gira Euskal Herri barnekaldean kultura biziartzeko eta bazterren inarrosteko, euskaraz.

BASAIZEA
Kultur Batasuna

KATEEKIN ATEAK HAUTS!!

1979an lehen Nafarroaren Eguna ospatu zenetik, gauza anitz aldatu dira. Euskal kultura bera ere aldatu da eta etengabeko aldaketan ari da. Gure aldarrikapen katea aldiz, nahiz eta denboran zehar aldatzen den, ez da sekula moztu.

Kateak erasotzeko etengabeko saiakerak gauzatu dituzte azken hilabeteetan. Gure balore kateak suntsitu nahi izan dituzte iaz, Nafarroaren Egunean emaniko LGBTIK+ bandera urratuz. Eskuin muturrak eta faxismoak geroz eta indar eta leku gehiago hartzen duen heinean, kateak lot ditzagun!


Indibidualismoa zabaldu, eta gure arteko kateak hautsi nahi dituzte, baina guk, norberaren etxeko ateak hautsi eta erasoen kontra batzeko deia zabaltzen dugu, elkartasun kateak lotuz. Euskararen kateek nehoiz baino indar gehiago behar dute, gure hizkuntzaren kontrako erasoei aurre egiteko eta dena delako oldarraldiari katez-kateko erantzuna emanez.

Lurrak, bizitzako lehen kateak ere faxismoaz sufritzen du azken urteetan. Geroz eta zentimetro karratu amankomun gutiago eta jabetza pribatu gehiago kateatzeko asmoz, sistema kapitalistaren ateak paretak bilakatzen ari dira.

Kateekin ateak hautsi ditzagun, norberaren mugaren ateak eta norberaren nahitik engaiamendu kate kolektibo eta oso bat sortu ditzagun faxismoaren diskurtsoak suntsituz, euskararen kontrako jarrera oldarkorak salatuz eta lurraren suntsitzea oztopatuz.

Aldarrikapen eta nahi guzi hauek ere kontutan harturik, aurten ere Nafarroaren Eguna antolatu dugu, apirilaren 27an, hain zuzen. Aitzinetik Kulturaldia indartsu jinen da.

GORA NAFARROAREN EGUNA!
GORA EUSKAL HERRIA!



NININI

ANTTON TELLERIAREN
2. KOMEDIA IKUSKIZUNA

Apirilaren 6a . 17:00

BIL ETXEA . BAIGORRI


SARRERA: 15 € / KIDEENTZAT 12€



NININI Antton Telleriaren bigarren komedia ikuskizuna da. Nekatutak-
en arrakastaren ostean eszenatokietara bueltan da, argi utzi nahi
duen arren ikuskizun honek ez duela zerikusirik aurrekoarekin.
Ikuskizun hau desberdina da. Konkretuki, okerragoa.

NININI egolatriari eginiko oda bat da, Anttonek bere buruaz hitz
egingo baitu etengabe, baina baita zintzotasun ariketa bat ere:
Ikuskizun honetan Antton biluztu egingo da. Metaforikoki eta
metaforikoki soilik, denon hobebharrez. Hitz egingo digu bere
buruarekin duen harremanaz, bere izenaz, bere bikotekideaz,
komikoa izateaz eta bertsolaria ez izateaz.

Egin barre berarekin edo egin barre berari. Nahi duzuna. Baina etorri
ikustera.




« URA EZ BAITA BETI GARDENA »

LIBURUAREN AURKEZPENA
TOPAKETA XABI LASA EGILEAREKIN

Apirilaren 11a . 19:00


LIBURUTEGIA . ALDUDE
BAIGORRI ORTZAIZE GARAZI ALDUDE (BOGA)
IRAKURLE TALDEAREKIN ANTOLATUA



Xabi Lasaren lehen eleberriak Nafarroako Erriberako herri batera eramanez gaitu, Lurribar herrira. Ur horniketa arazoek eta herriko agintarien ta laborarien arteko liskarrek abiatzen dute lana. Nafarroako gobernu berriko Sara Zaldaiz ingeniaria, uraren antolamendurako arduraduna, bidaltzen dute herri horretara, baina egoera koropilatuko zaio enpresari batzuen jokaerarekin, alderdi politikoen esku hartzearekin, eta hilketa bitxi batzuekin. Egileak 'thriller' honentzat, usaian aurkitzen ez ditugun pertsonaiak eta lekuak ekarriko dizkigu, protagonismoa ingeniari bati emanaz eta Nafarroako Erriberan jarriz.

Berez lur idorrek direnak gertakari latzez, abentura arriskutsuz eta egoera hilgarritz bustiko dira : datu faltsuak, joko eta interes politikoak, negozioak, ustelkeriak, desagerpenak, hilketak, interes pertsonalak, polizia ezberdinen arteko liskarrak...

Azken urteetako Nafarroa Garaiko egoera politikoa atzean duela, bere gobernu aldaketekin eta inbertsio handiekin, ur horniduraren arazo larria begi aitzinera ekartzen digu eleberriak, honi lotu borrokak ekarriz, horien artea ltoizkoa.



HAIZEN BASA

ODEI ETA ZITADA & RLANTZ-EN KONTZERTUAK


Apirilaren 18a

BAIGORRI

SARRERA: 15 € / KIDEENTZAT 12€



Apirileko Haize Basaren karietara, Zitada & Rlantz bikoteak hasiko du gauraldiko lehen kontzertua. Reggae-dub estiloko euskal taldea 2017an hasi zen. Ondotik, Odei-ek «Goizegi hiltzeko» rap estiloko disko berria aurkeztuko digu. Rap eta reggae dub amorratuek loriatzeko parada ederra izanen dugu! Baita ingurune musikal berriak deskubritzeko posibilitatea izango da ere entzule ez direnentzat...



ANARI

KONTZERTUA


Apirilaren 30a . 19:00

BEHEREKO BENTA . IZPEGI

SARRERA: 10 € / LEKUAK ATXIKIZ basaizea@gmail.com



Anari bakarlaria izango dugu gurean. Gitarra hutsez eta Xabi Etcheverryren laguntzarekin, Anariaren kantutegi zabaleko abestien moldaketa gertu eta akustikoa eskainiko digute.



MUSIKALDIA

“XIBEROA KANTUZ LORATURIK” EMANALDIA

Apirilaren 26a . 20:30

BIL ETXEA . BAIGORRI
SARRERA: 15 €

Kantua:
Maddi Oihenart
Ihitz Iriarte
Kantua eta perkusioa :
Beñat Achiary
Julen Achiary
Txirula eta kantaria :
Mixel Etxekopar
Klarinetea:
Nicolas Nageotte
Biolontxelo :
Jordi Cassagne



Basaideak, kantuak eta irudiak uztartzen dituen ikuskaria. Denboran ibilitako oroimin hori sorkuntza anitzez elikatu da. Tradiziotik abiatuak gaur egungo kultura garaikide aberatsa loratu dute Pirinioaren ipar magaletan bizi diren sortzaileek. Hemen dira Pastoralak eta Maskaradak. Hemen bizi ziren Etxahun-lruri eta Pierre Topet Etxahun. Kantua arte eder bihurtu den lurraldea dugu Xiberoa.

Herri-kantu hauen aberastasun esentzialarekin esperimentatzera gonbita luzatu nahi dizuegu.

ONDOTIK GAUALDIA IKASTOLAN ARRANO BAND TALDEAREKIN.

Arranoband duela pare bat urte Lesakako Arrano Elkartearen sortu zen taldea da, Nafarroa iparraldeko musikariz osatua. Oinarrian Euskal Herriko musika du, abesti pare bat propioak izanik ere, gehienak euskal musikari ezberdinen kanta ezagunen bertsioak baitira. Hainbat instrumentuz dago osatua taldea: txistua, klarinetea, eskusoinua, zeharkako flauta, gitarra, perkusioa, tuba, tronpeta eta ahotsa.



2025

APIRILAREN 27A
BAIGORRI

NAFA RR● AREN EGUNA



GOIZA GAINEN PLAZA

9:00

MERKATUA TXALAPARTARIEKIN

9:00

ASKARIA IKASTOLAN
TXITXIRIOAK TXARANGAREKIN

11:00

DESFILEA BEHEREKO PLAZATIK. GAITEROAK, AMEZKETAKO
DANTZA TALDEA, ALTSASUKO DANTZA TALDEA, UZTARITZEKO
DANTZA TALDEA, MAKILARIAK, BASANDEREA, BASALDUNAK,
NAFARROAK ETA BAIGORRIKO ZIGANTEAK, ETA KILIMON.

11:30

EKITALDIA ELIZAKO PLAZAN

12:00

BAS' HITZA. IRRINTZINA

13:00

LARRAIN DANTZA ETA JAUZIAK



HAUREN & FAMILIEN XOKOA

14:00-19:00

PUZGARRIAK, AURPEGI
TINDAKETA...

15:00

BERTSO SAIO MUSIKATUA

ALAIA MARTIN, HAIRA AIZPURUA & EKHIÑE ZAPIAIN.
GAI-EMAILEAK: AMAIA CASTORENE & XALBAT
ALZUGARAI.

17:00

PONTX PAILAZOA

18:00

OREKA ZIRKOA



ARRATSALDEA BEHEREKO PLAZA

12:00

MUTIL GAZTEAK

14:00

ATZARBALE

16:00

BROKEN BORTHERS BRASS BAND

16:30

DANTZA IKUSGARRIA

17:30

BILABAL

18:00

KALUME

20:30

KASKEZUR

22:00

BELE

00:00

EZEZEZ

01:30

DJ GHETTO LUTX

IPAR EUSKAL HERRIKO HITZA



Formatu berritua,
aldi berri bat abiatzeko

24 orriko magazina astero

Gaiak barnatzeko toki gehiago

Irudi gehiago

Kazetaritza gehiago

euskara gehiago...

eta iparraldekohitza.eus webgune berria

Euskara zure eskuetan da, hartu HITZA!



Harpidetza

40€

urtean

Egin harpidetza:
iparraldekohitza.eus/harpidetza




Goicoechea

POTIER - CÉRAMISTE



Village d'artisans - Rd 918 - 64780 Ossès - Ortaize
www.poterie-goicoechea.com



TRUITE DE BANKA

— MICHEL GOICOEHEA —



zurlan

ZURGINTZA . MAHAXTRUGINTZA . ZUREZKO EGITURAK
CHARPENTE . MENUISERIE . OSSATURE BOIS

SCOP ZURLAN . 64430 BAIGORRI . 05 59 37 46 75

VENTA **CHEZ PEIO**
iRiGOIENEKO

BAR - RESTAURANT - TABAC - MAGASIN

0034 948 45 32 14 - Col d'Ispeguy 31714 Erratzu

Baig
Optique

FLORENCE ETCHENIQUE
Bankako bidea - Baigorri
05 59 49 01 46



Savonnerie Artisanale

Baigorri
05.59.37.93.42
www.etxeanegina.com

Tartes salées - Quiches - Tartines
Tartes sucrées - Gâteaux - Glaces

BAIGORRI

05 59 49 03 88
f txanogorritxo64430



TARTARIE - TARTAGIA

Tartes salées - Quiches - Tartines - Soupes sucrées



IROULEGUY Arretxea
Famille Riouspeyrous Familla

www.domaine-arretxea.com



TAMBOURIN
Pardi gasana
Fromage
pour la table
cassava-raty
Breuil

Ferme Enautenea

Michel et Guillaume Tambourin
64430 Saint-Etienne-de-Baigorry

Tél. 06 32 34 26 99
tambourin3@wanadoo.fr
www.fromagetambourin.fr

ARNABAR

Eleveurs de Canards au Pays Basque

www.arnabar-foie-gras.com



0559491309
ORTZAIZE
OSSES
kidea.eus



Sanitaire | Chauffage | Zinguerie

CURUTCHARRY

BAIGORRI 06 75 57 49 58

HARRIBELTZ



Daniel & Julien MOCHRO
Producteurs de Fromage Fromier sur table
L'authenticité de nos produits - qualité

Port : 06 84 72 44 75 - www.gite-mochamberra.com

Hôtel** - Restaurant St-Sylvestre




DOMAINE ORONOZIA
ATERPETXEA | GITE DE GROUPES

64430 BAIGORRI 05 59 37 42 03
www.domaine-oronozia.com

AGERRIA

Foie Gras
Spécialités Basques

05 59 37 41 06

COIFFURE LIBERTY
Par Patricia Rozados



Sue Principale
64430 BAIGORRY
Tel: 06 59 37 42 30

TRASTORZA

PÂTISSERIES
BOULANGERIE
VIENNOISERIES



64430 St-Etienne de Baigorry
05 59 37 40 06 / 06 30 50 91 78

DOMAINE ILARRIA



Pais Espal
Bourg 64220 Irouleguy
05 59 37 23 38

BEREKO BENTA




GANEROVERA
MPECI

FRANTSES ITZULPENA
antton.bank@wanadoo.fr
06 85 38 45 33
TRADUCTION BASQUE


GARAGE OCAFRAIN
Lieu dit Anxuetia
64220 IROULEGUY



CITROËN JOHN DEERE



Mamiño
Tuita gasotxiak
Sabarots Letzius
Alasta 64430 - Aldude
Tel : 05 59 37 56 02



FERME Belarrea ETXALDEA
BAIGORRI

www.porc-manex.com

DEKRA
CONTROLE AUTO IROULEGUY

CONTROLÉ PAR Patrick IREY

ZONE ARTISANALE IROULEGUY 05 59 49 16 59



Garage SEMERENA
PEUGEOT BAIGORRI
05 59 37 42 69

Sur RDV au 06.85.15.39.88
Baigorri

Gipsy Esthétique & Spa
Un moment d'évasion au naturel



SALTEGIA
Maite GARATEA

64430 ALDUDE
05 59 37 56 78



SÉBASTIEN CLAUZEL & CÉCILE SABBAH

Quartier Leispars
64430 St Etienne de Baigorry
05 59 37 52 84 / 06 74 55 02 95
domainguizia@gmail.com

APPELLATION BOULEGUY CONTRÔLÉ

PRODUCTEURS FERMERS DE LA VALLÉE DES ALDUBES



Yvonne et Michel OCAFRAIN
GAEC Irouin - 64430 BANCA
Tél. : 05 59 37 43 51
Fax : 05 59 37 46 84

SPAR

Supérette
ouvert de 8h à 20h
Marché de l'été
Bain de chauffage Potomac



05 59 37 40 34
06 06 06 16

URRIZA CHRISTIAN
entreprise maçonnerie

Route de Banca
64430 - St Etienne de Baigorri
0559374008 - 0682248914
urriza@orange.fr

TROULEGUY
APPELLATION D'ORIGINE CONTRÔLÉE

05 59 37 93 68
ameztia@orange.fr
64430 ST ETIENNE DE BAIGORRI
GEMMETS - EUSKAL HERRIA

DOMAINE
AMEZTIA

BISITAK
JASTAKETAK
SALMENTA

KATTAKLIN
Garbiketaren erregin !!!

KATTAKLIN

ERREGUINA
HOTEL RESTAURANT

BANKA
WWW.ERREGUINA.COM

BAR BRASSERIE

TH TRINQUET
HERRIARENA

230, Irulegiko Errepidea
64430 BAIGORRI
05 47 71 35 38
trinquetbaigorri@gmail.com

Bâtiland
L'univers des matériaux

BERECIARTUA

www.bereciartua.batiland.fr

QUARTIER EIHERALDE
BAIGORRI
05 59 37 91 00

Chocolaterie

Laia
Txokolategia

SALDUMBIDE
Albert
Zurgina

MENUISERIES
Bois - Alu - PVC

CUISINES
Agencement Intérieur

06 78 75 73 65
ZAC d'Irouleguy 64220 TROULEGUY

Fabrication sur mesure

Manexenea
HÔTEL** Restaurant

05 59 37 41 68
hotel-manaxenea@orange.fr
www.manaxenea.com

Alfaro
OSTATUA

JATETXEA
JOKO BERRI

Ouvert 7/7 Idekia
ALDUDE

Belaun
ALDUDEKO ETXE EKOIZPENAK

belaun-aldude.com 05.59.37.89.40

AMAMA

JOANES HARITSCHELHAR
mahatsiaran - vigneron - AOC Irouleguy
06 84 80 01 28
amama.etxaldeoa@gmail.com

ossès Librairie Café

MENTA

Liburutegi Kafea ortzaize

MENTA
FERME AUBERGE
—RESTAURANT / ALDUDE—

www.ferme-auberge-menta.com

GARAGE IREY
AGENT RENAULT DACIA

0559374771 - BAIGORRI



Pizza Pausa

BAIGORRI
Place de la Mairie - Herriko plaza

05 59 37 25 44

18H-21H

Jeu di à Dimanche
Ostegunetik Igandera

CLAAS
MBB-ADOUR

TRACTEURS
MACHINES AGRICOLES

BAIGORRI
09 85 60 61

MAKUR
MÉTAL



⚡ **Elektrika**
Electricité
⚡ **Aire Egokitua**
Climatisation

ARGI EGIN

Tél/Fax : 05 59 37 47 25

⚡ **Bero ponpa**
Pompe à chaleur
⚡ **Eguzkikoak**
Solaire

BAIGORRIN ERE ERASORIK EZ !

Nafarroaren eguna denontzat leku segurua
izaitea nahi dugu. Edozein eraso mota ez dugu
onartuko. Izan dadin, eraso fisiko ala moralak,
behar diren baliabideak ezarriak izanen dira
horien saihesteko eta zerbait gertatzen balitz,
berehalako neurriak hartuak izanen dira eraso
huni erantzuteko.

Jaz gertatutakoa berriz ere salatzen dugu
eta ez dugu nahi aurten ere, holako gertakari
batek egun hunen dirdira ilundu dezan.

Bestalde, aurten, arreta berezia emanen
dugu bestazaleak drogatzeko fenomenoari.
Ez dugu onartzen bestazaleak drogatzea,
erasotzaileen gogo sexualak asetzeko
ekintzak ez ditugu baimenduko!

Denen ardura da Nafarroaren eguna, egun
pollita eta denen errespetuan izan dadin!
Gora nafarroaren eguna!

BASAIZEA
Kultur Batasuna